

Gaurtik aurrera Martxelo Otamendi izango da EGUNKARIAko zuzendaria

Iñaki Uriak kontseilari-ordezkarikargua beteko du jakina denez


Iragan urtarrilean hil zen Joxemi Zumalabe EGUNKARIAko kontseilari-ordezkarik utzitako hutsunea bete beharrek, aldaketa nabariak ekarri ditu egunkari honetara. Alde batetik, Iñaki Uria egungo zuzendariak kargu hori utzi eta lehenago Zumalabe zenak zuena hartuko du bere gain. Bestetik, Martxelo Otamendi tolosarra izango da aurrerantzean EGUNKARIAko zuzendaria.

DONOSTIA

Gaurtik aurrera, Martxelo Otamendi tolosarra izango da EUSKALDUNON EGUNKARIAko zuzendari berria, Iñaki Uriak orain arte izan duen ardura bere gain hartuz. Uriak, jakina denez, iragan urtarrilean zendu zen Joxemi Zumalabek zeukan kargua beteko du aurrerantzean, Egunkaria S.A.ko Administrazio Kontseiluko kontseilari-ordezkarik izango da hain zuzen.

Aldaketa horiek guztiak Joxemi Zumalaberen heriotzak sortarazi ditu, beharrezkoa baitzen norbaitek haren lekua betetzea. Lan horretarako Iñaki Uria aukeratu zuen iragan maiatzaren 30ean enpresa honetako Akziodunen Batzarrak, Administrazio Kontseiluak hala proposatuta.

Era berean, zuzendari lana Martxelo Otamendiri ematea erabaki zuen Administrazio Kontseiluak, eta hala adierazi



Martxelo Otamendi.

AITOR BAYO

zior Akziodunen Batzarrari maiatzaren 30eko bilkuran.

Otamendi tolosarrak 35 urte ditu eta guztiz ezaguna da euskal kultur munduan. Urte askotan Tolosako Udal Euskaltegiko irakasle ezezik, zuzendari ere izandakoa da.

Hala ere, arrazoi horregatik baino ezagunagoa da jendearen artean telebistan egin duen lanagatik.

Izan ere, 1987an ordura arte lanbide zuena utzi eta ETBn hasi zen lanean, promozio arloan zehazki. 'Aste Ero' eta 'Txoria dut Maite' saioen ardura izan zuen besteak beste bolada hartan. 1990ean, kameraren atzealdea

utzi eta aurrera egin zuen salto 'Babel' saioa aurkeztuz. Otamendik berak egindako zenbait elkarrizketek eta denbora-pasa tarteek osatzen zuten saioa.

1991-92 denboraldian 'Egonean Giro' eguerdi osteko magazineko zuzendari izan zen negu partean, eta 'Rockibili' gazteen-tzako saiokoa, berriz, udan. Nabarmenezkoa da telebistako saiorik onenari 'Argiak' emandako saria jaso zuela urte hartan 'Egonean Giro' magazinagatik.

Azken urte honetan K-2000 etxeak ETBrako ekoizten duen 'Flamingo Berria' saioan aritu da lanean, baina gidoigile modura oraingoan.

Publifikatu diren ikastoletako langileentzako deialdia urrian

DONOSTIA

Publifikatutako ikastoletako irakasleak funtzionari bihurtzeko azterketetarako deialdia urrian egingo da eta probak 1994eko udan izango dira, nahiz oraindik data ofizialik zehaztu ez den.

Joan den maiatzean Fernando Buesa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak aditzera eman zuenez, lehenago lanpostu zerrenda egin beharko litzateke, eta hori zehaztu ostean deialdia egingo litzateke. Hezkuntza Saileko iturrien arabera, sare publikoan sartu diren ikastoletako 1.600 bat irakaslek izango lukete proba hauetan parte hartzeko eskubidea.

Euskal Eskola Publikoaren Legeak ikastoletako langilegoak hezkuntza sare publikoan nola uzartu behar duen arautzen du. Legeak lan iraunkortasuna ber-

matzen du, oposizio mugatu horiek gainditu ez arren. Lehiaketa mugatu honetan balizko partehartzailearik beste lanpostu aterako ditu Administrazioak. Gaitasunaz gain, hautagaiek hezkuntzaren arloan eskainitako zerbitzuak ere hartuko dira kontuan.

Proba hauek gaintzen dituztenek praktikaldian aritu beharko dute denbora tarte batean eta honen ondoren Euskal Elkarte Autonomoko funtzionari bihurtuko dira eta behin-betiko destinoa lortuko dute beraien lanpostuan.

LAN KONTRATU IRAUNKORRA Proba mugatu hauetara aurkeztuko ez diren irakasleek edo behar bezainbat punturik lortuko ez dutenek euren postuari eutsiko diote Administrazioaren zerbitzurako lan kontratu iraunkorraz.



Fernando Buesa.

BAYO

Euskal Eskola Publikoaren testuak esaten duenez, 1987. urteko abenduaren 18a baino lehenago kontratatutako langileek behin-betiko kontratua izango dute. Halaber, epe horretatik aurrera Administrazioaren eskaerei segituz behin-betiko langile gisa hartu diren lagunek ere estatus hau gordeko dute.

Laskurain: «EHUn errotuta dagoen kontrol eza gaintu egin behar da»

GORANE AGIRRE / BILBO

Juan Luis Laskurain EAEko Herri Kontuen Auzitegiko lehendakariak EHUn «errotuta dagoen kontrol ezaren kultura» gaintu eta beste dinamika batean sartu beharra aldarrikatu zuen atzo. Laskurainek EHuko 1990. urteko fiskalizazio txostenaren berri eman zion atzo Kontseilu Sozialari.

«Unibertsitateak ez du sekula beharrezko seriotasunarekin hartu erabiltzen dituen fondo publikoen kontrol ekonomiko-finantzarioa ez eta kudeaketa ere. EHUn esku jarritako bitarteko publikoen erabileran razionalizazioa eta eraginkortasuna falta da», azpimarratu zuen Laskurainek.

EAEko Herri Kontuen Auzitegiak 1990. urteko EHUn kontuei buruz egin duen fiskalizazioak aurreko hiru urteetako txostenen ondorioak baieztatu dituela adierazi zuen Laskurainek. «Fiskalizazio honetan, aurrekoetan bezala, agerian gelditu dira irregularitasun garrantzitsuak, legediaren haustura orokorra eta barneko kontrol akats larriak».

EHUn kontuen egoera ezagutzeko izandako oztopoak eta mugak direla medio, Laskurainek hitzetan, «Herri Kontuen Auzitegiak ezin du hitzik esan 1990. urteko kontuen likidazioen egokitasunaz».

Azken urteetan EHuko gestioan Herri Kontuen Auzitegiak aurkitutako irregularitasunak badiudi etorkizuneko fiskalizazio txostenetan ere agertuko direla. Laskurainek jakinarazi zuenez, «1991. urteko fiskalizazioan, zenbait alor dagoeneko aztertu dira,



Emilio Barbera.

BAYO

ez dirudi hobekuntzarik egongo denik 1990ekoarekin alderatuz. Iritzi okerragorik ere eman daitekeela uste dugu».

Juan Jose Goiriena de Gandarias buru duen errektoretza taldea EHUn kudeaketa hobetzeko beharrezko neurriak hartzen hasia dela nabarmendu zuen Laskurainek. Eta zentzu honetan, lau edo sei urte barru Unibertsitatea «Administrazio Publikoak izan behar ez duenaren eredu» izango delako esperantza agertu zuen.

Gorienak, bestalde, aditzera eman zuenez, «EHUn kezka eta erronka nagusia etorkizun hurbilean gainontzeko administrazio publikoekin homologatzea da. Erraza ez den bidea betetzen saiatzen gara, baina, bi arazo nagusi aurkitzen ditugu, aurrekontu arazoak eta pertsonal falta. Hala ere, oztopoak gaintu eta kontu fidagarriak eskaini nahi ditugu».

EHuko Kontseilu Sozialak oniritzia eman zion atzo EHUn aurtengo 24.688 milioi pezetako (1.122 milioi libera) aurrekontuari.



HAUR PROGRAMAZIOA
EUSKARAZ

Ekainak 9
Arratsaldeko 6.30etan
Ziudadelan

KUKUBILTZO TALDEA
"Errieta"
Sarrera dohainik